

Muguruza nahiago

TXILLARDEGI



KOTXEKO irratia piztuta neraman atzo, mintzo zena nor ote zen eta zertaz ari zen ota-otza erreparatzen nuelarik:

«No podemos seguir anclados en el pasado y en viejos resentimientos».

Bukatzean «zorianak» bota du euskaraz(!), eta hizlariaren izena jakin-erazi: «Han escuchado Vds. al alcalde de Bilbao, Sr. Ortuondo».

«Borrón y cuenta nueva» proposatu du gure gizonak. Eta nik susmo txarrak hartuak banizkion ere, zertaz ari zen ez nekien. Iratsaioaren lehenengo zatia galdua nuelako.

«Iraganarekin» hausti nahi izanez gero, dena dela, «zorianak» hori bitxi gertatu zen. Mikoleta aspaldi hil baitzen. (Dena esateko, Ortuondok ez dakike Mikoleta nor zen: eta axola ere ez).

Hitz batez: Ortuondok 'progreen' bidetik, ikuspegi 'modernoago' bat nahi luke gaurko Bilborentzat.

«Iragana» ahaztu beharra dela-ta, gaur uertu dugu: Pilar Careaga eta Areilza faizistik gonbidatu baitzuten... Bi fatxa ezagun.

«Bloque democrático» osoak nabarmen du iragana ahazteko gogo errabiatu hori (iragana euskalduna eta aberizalea, bakarrik). *PNI ak barne*, noski. «Hay que adaptarse a las nuevas realidades». Erdara baituaz: «hay que hacerse español y anti-vasco».

Sevillanek kantatuko joera. «Procesión del Rocío» eta Aste Santuko «Saetak» berrindartzea, «mamnitakoaren» ordeztze, «cocido madrileño» eskaintzea, hori da Bilbo eta Euskal Herria «modernizatzeko».

Mikoleta bilbotarra zen, Arana-Goñiri ere bai... Zer ote zen Eli Gallastegi?
— «Urtikan! Kontu zaharrak horiek» — dioskue.

Hots, Bilbo gaurkotu nahi izatekotan, Kanpora Ortuondo! Kanpora Pilar Careaga! Eta Gora Josu Muguruza!!

Ordez

INIGO ARANBARRI



Ez duela bada idazleak bereari eragiterik botere zibiletik ate. Eman zaio askatasuna sortzeko, baldintzapeko askatasunean du horiek aurrerakoa.

Portugalen izan da. Kultura ministeritzako idazkariordeak atzera bota du zenbait kolektibo intelektualek II. Europako Sari Literario-rako (astindu nagiak, asteasuaria iaz sprinean sartua) proposatu zutena. Politiko bat izan dela José Saramagori, hau da, bere nobelari betoa ezarri diona. Nork nori, Betoa. Eta arrazoitua: «ez du Portugal ordezkatzeko». Eta hain egia borobiltaren entzute hutsak erraz du barrenak ozpintzen.

Saramagori, tripak amorrazioz estu, Scorese eta Godard-i bezala, ez zaito arrazoiaren txorkatila trukatu inksizizioz eta Torquemadaz mintzo zaigula. Politikoak moztu diu bidea idazleari. Kontrola, estatu arrazoiak. Fundamentalismo katolikoa, arrazoitu du surtakoak. Izen gehiago behar baditu guk ere baditugula tradizionalagoak, garra bera menberedun ezetza baino maiteago izan duten kargu publikoak, idazkariorde ez haina alkate genuen Jon Castañares, Baina ez dela hori. Ordezkatzeari badira, azkarra dute Torquemada hori. Bere obrak ez du Portugal ordezkatzeko. Eta komunista bati esan. Touche.

Ez du Portugal ordezkatzeko. Obrak ez duela populazioaren gehiengoaren ideario etikoa ordezkatzeko esan nahi izan diu politikoak. Eta Saramagok, zahararen zaharrez, hitzari bedurrez, barrurik ez norberaren obra, maifautsa bezala, inoz ere ez dela demokratikoa esateko. Imposível José. Nao nascisteis para ganhar o Eurovision.


HEMEROTEKA

● **Navarra**

Duintasunaren akordioa

Nafarroako Parlamentuak laster bere egingo duen dokumentua, nolabait Gipuzkoako Diputazioaren akordio penagarriari erantzuna izan da eta galdutako duintasunaren zati bat berreskuratzen edo hori gutziz gal ez dadin laguntzen du. *Baina ez da ahaztu behar* Nafarroako indar demokratikoei egindako deialdiak Alliren jarrera politikoa duela sorburu. lehen unetik alineatu baitzen EAJK Lurraldearekin hitzartzeko ahaleginekin autobidearen trazaketa aldatzeko eta, gainera, ez bait dio ukorik egin Nafarroara zabaltzeari.

EDITORIALA



GALLEGO & REY / DIARIO 16

● **EL CORREO ESPAÑOL**

'Pelopintxoren' eszenarioa

Eradikaltasuna suspertze-ko tentaldia oso handia izan daiteke, arriskuan besteak beste dauden eta txantai armatua botoaren bide demokratikotik

lortu ezin dena lortzeko posibilitate bakarra —urruna izan arren— baliuz bezala aurkezten denean. Horregatik dute hainbeste erantzukizun handia HBko buruzagiek irtenbide bakartak ETA eta Estatuaren arteko negoziazio ezinezkoa aldarrikatzen dutenean, nahi duten moduan ezinezkoa alegia; zentzurik gabeko helburuak planteat-

zateak indarkeriaren amaieraren eszenario posiblea oztopatu baino ez bait du egiten. Eta denbora aurrera joan ahala badirudi eszenario horrek ihes zihuan Pelopintxo atxilotuaren antz handiagoa izan dezakeela. HBk hainbeste ospatu duen Leitzarango autobidearen gatazkan hitzartutako konponbidearena baino.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Andaluziaren jarrera

«Euren etxeko goseak desetxeratu zituen Euskadira...», «... hartu nituen lehen ostiak...» eta kasualitatez ni egurten gehien nabarmendu zena, andaluzaz zen... «Eta etxean eraiki ezazue muro handi bat, bertatik inork aldegin ez dezan goseak beharturik. Eta goardia egin gau eta egun, inor inora joan ez dadin uniformez armaturik».

Gernikan andaluz talde batek egindako ekitaldiari buruz, pasa den apirilaren 21eko EGUNKARIAN Hernani Futbol Taldeko entrenatzaile den J.M. Ostolazak idazten zuena irakurrita, harri eta zur geratu nintzen, ikusirik oraindik ere badirela horrelako jarrerak beste herrietan, eta kasu honetan Andaluziako herriari buruz.

Gogora erazi zidan, goseari eta etorkizunik ezari ihes egin nahian gure arbasoetako zenbat eta zenbat gertatu ziren hemendik oso urrutira joan beharrean, eta ez dut uste alde handirik dagoenik Euskal Herria etorri diren andaluz kasuarekin. Ez nuke esango hargatik tozatu ibili behar genuenik, haatik; emigratu beharra ez da sortzen jaioterria utzi behar izaten dutenen borondatek, ezta ere herri batzuk besteak baino kapazagoak edo eskasagoak izatek; zergatiak, ekonomiaeren baita-

koak eta historiaren gorabeheren ondorio izaten direla esango nuke.

Eta geure historiaren eta jan-kulturaren gorabeheratan sartuta komeniko da, aidanez, gogoratzea, bestelako adibideetan ez sartzearen, gure talde goxoak, euskaldunoi makina bat gose kendu dituguten, halamoduz Ameriketarik ekarriak ditugular: egungo Hego eta Ertamerikan jaki funtsezkoenetakoak diren *torrito* horien plagioa hutsa.

Torturatuak eta borroroak gogoratzen jarrita, bestalde, ez daugara euskaldunok etxetik kanpora begira ipini beharrik pieza ederak aurkitzeko: Lejarza eta Iturbide, esate baterako. Ez al zen euskal ertzaina izan Hernaniko *Turko* hil zuena?

Aldiz, zerrenda luzea osatuko genuke ez Hernanik ez Euskal Herrian jaotakoak, ezta ere euskal jatorrikoak, izan gabe Euskadi askatzearen bizia ere eman duten gizon-emaume horiek. Frankismoak asfilitatu zuen azkena. Txiki, gogoratzea nahikoa izan behar luke.

Eta Paco Casero bezalako txaketeroak jorraztekoan, budugu hemen bertan kasta bereko jende-ederra, edozein gusto, kolore nahiz zapore asetzeko adinakoa.

Beraz, on litzateke aje zaharretara ez itzultzea: norbanako batzuen egintzak herri osoen jurtzu ez egitea eta alfer-alferrikako ezimukiak ez bultzatzea. Izan ere, geu izateko esku-

bide osoa dugun arren, ez gara besteak baino gehiago, gutxiago ez garen bezalaxe.

ION GARCIA

Beasain (Gipuzkoa)

Txululari batek txitxulariari

Aste saimdu ixildu zaugu Arizkungo Bilbagarra... Han dago pausuan, Nafarroan, Baztango lurrean, Amauruen gerizan.

Hirutan hogei urte aurostu duzu zure lur maizia, eztaid edo herriko phestetan. Denak xarmatzen zinitularik zure simingillare pategabearrekin, zure baserritar errihimo zahurra-reenik.

Ezagutu zinitudan, Felixte Iriarte atabalariekin, duela hamasei urte. Anotoan: geroztik bethi elkarren lagunak izan gira, eta maite zinitudan bertziak ez bezala txitxia josten zinitelakot!

Eskual Herriek eta oroz bat Pirineotako kulturak galduta beren arbizarrak...

Jo zazu, Maurizio, jo, Josefateko sorbuetan, Lexarduat, Zothal, eta beste Amalekin, sekulan amaituko ez den Muthil Zantzia!

Agur ta erdi Maurizio Elzalde...

JEAN MICHEL BEDAXAGAR

Urdinabarre (Zuberoa)

GAIA JARRITA



Taugres-Real Madrid

Semifinalak lortuaz gero

iazko bide beretik

baina finala hurbil duzue

eta hor nahi zaituztet nik

Laso, Arlauckas, Wood edo Rivas

edo besteen bidetik

iaz bezala utzi zazute

Madrida zuen atzetik.



3.

ZIGOR ENBEITA



Batzorde Parkeak: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOSE MIEL ZUMALABE

Gerentes: FERMIN LAZRANO

Zuzendariak: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
LUZIAN ETXEZAHARRETA, INAKI URJA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELIO KOTETA

HELBIDEAK

Eredekioz eta Taliorra: ANTZA S.A. Indus-irialdea 01-012. Publikoak / 20160 Lasane-Oña / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitateak eta Administrazioa: Antso Jakintza, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iruye Monastegia, 45-13. esk. / (Iruñe) dorreak / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2. Leskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galtzerria kate. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11